


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

215n. zenbakia
zezeilla/otsaila 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



- EUSKAL-ASTEA BILBAO'N (1996-12-02, 03, 04)**
- EUSKERAZALEAK ALKARTEAK ERATUA
 - AITA SANTI ONAINDIA GAI DALA
 - Barru-miñezko olerkari
 - Elerti-edesgille
 - Euskaldun

PERU' TIK

Aita Zenon Uriguen pasiotar adiskide ta lankideak, gabon-aurrean eskutitza egin dausku Peru'ko Lima'n dan "Santa Beatriz" parrokitik.

Gure adiskide ta lankide onek sarritan eta era askotara agertu dausku gure euskereari dautson benetako maitasuna. Nok ez dauz irakurri berak Peru'tik idatzitako lan ego-kiak?

Baiña aspaldion isillik geunkan gure Zenon. Ez euskun bialtzen idaz-lanik, ez eskutitzik. Zer jazo ete jako?

Azkenean pozik artu dogu emen agertzen dogun esku-

titza: Esku-artean daroazan lan aundiak ez dautsoe izten lengo lana egiten.

Beartsuen artean beteten dau bete zeregiña Aita Ze-non'ek eta zeregin ori guztiz itzalgarria da gure aldetik.

Baiña ez dogu itxaropena galtzen! Etorriko jakoz gure adiskide ta lankideari egun nasaiagoak eta orduan barriro pozik egingo dogu alkar lana.

Irakurri egizue Aita Zenon adiskidearen eskutitza:

LIMA 96-abendua

Olazar'tar Martin jauna

Mungia

Lagun zintzo ta maitea: Agur t'erdi, jauna.

Gabon zoragarria. Urte Barri pozgarria.

Nire ixiltasunari buruz guztiz arrituta izango zara, onezkero.

Zergaitik ete da ba, nire ixiltasuna? -Astirik eza, eta gairik eza.

Parroki ontan buru belarriraño lanez beterik nago, ogei millatik gora lagun ditudalako neure ardurapean. Eta euren aide zintzo jokatzan asi ezkerro, etorri eta etorri jatortzuz agortu eziñeko bearrak eta ekiñaldiak.

Emengo jendeen bearrizanak ez dira gero edozelakoak, edo auntzaren gabeko estulak: Sendi askoren ondapena, lanik eza eta pobretasuna, barru-barruko estutasunak eta naigabeak, larri-aldi gorri ta mingarriak. Asko ta asko dabilta argi baten billa, zuzenbidea eskuratu nairik.

Gabon jaietarako pobreen alde jakiak eta jantziak batzen diardugu, egun onetan, Gabon gaba gozaro ospatu dagien.

Jesus'ek esandakoa egia da izan be: "Eskerrak Jauna, gauza oneik jakitunai eskutatu eta pobrei argitu dituzulako"

Zeintzuk dira gauza orreek? -Jainko zaletasuna, otoiari ekiteko eraspenna, Kristo'ren Barri Ona gogo onez artze-ko gaitasuna... etabar.

Gaztedia, barriz, eun bat neska mutil, egunero ibiltan dira eliz etxe ontan otoi giroan, abesti saioan, euren arteko batzarretan. Amabost urtetik gorako neska mutillak dira, biotz garbiak, Jainko zaleak eta pastoral arloan jokatzan diarduenak.

Zer esanik be ez, nire egunak eta orduak eginbearrez gañezka dagozala.

Orretzaz gañera Parroki ontan illeroko aldizkaria argitaratzen dogula, eta ainbeste eta ainbeste idazlanek makiña bat denpora kentzen daust.

Sarritan egon naz pentzatzan aldizkari ontan ateratzen ditudan idazlanak, batez be Editorial, euskeraz jarri eta orra bialtzea. Baiña, egia esateko, ez dot uste erri ortarako egokiak eta aukerakoak izango diranik.

Dana dala, ZER aldizkaria illero artzen dot eta ondo jantzia dator etorri be. Ez dot uste nire premiñarik dozunik.

Or bialtzen dautzudaz 50 dollar nire zorrak ordainatzeko.

Zure erantzunaren zain nago.

Ondo bizi eta zintzo ekiñ.

Artu, danok besarkada samur ta zintzo bana.

Agur
Urigen'tar Zenon

"ZER"EK AURTEN OGEI URTE

Au da poza irakurleok! Bizi izango ete dan bildurrez sortu genduan "ZER" gure aldizkariak, aurtan, 20 urte beteten dauz: illero agertu da, udan ille bigaz zenbaki bat egiten dala, urtean amaika zenbaki.

Ogei urte oneitara begiratu ezker, iru gauza agertzen jakuz: Lana, nekea ta poza.

Lana, askoren artean egiña eta orrexegaitik ari Lana idazleena, lana irarkolakoa, lana banatzailleena, lana kobratzailleena, eta beste askorena. Biotz zabalez egindako lana, bizkaieraren aide egindako lana, lan aundia.

Nekea, lanak beti ekarten dauan nekea, baiña gure neke au, lanak baiño gitxiago ez dau ekarten estutasunak, eldu-eziñak eta beste lan askotan sartuta egonik, ordu askeak atera-bearrak. Nekeak artu bear izan doguz guztiok, gure bizkaierearen alde.

Eta poza. Benetan maitagarri dan gure erriaren alde, benetan bear-izanean dagoan gure euskerearen alde, zeozer egin dogu eta egiten dogu. Ez gauza aundirik, bai al doguna. Eta poztu egiten gara geure estutasun guztien barruan.

* * *

Ogei urte oneitan gure jokabidea argia ta zeatza izan da: ez dogu gure gogoia ukatu, ez zapaldu.

Zuzen jarraitu dogu ZER egitean: Ba-daukaz utsak, irar-utsak. Nik edozein liburu irakurten dodanean, euskeraz naiz erderaz, lenago baiño askoz irar-uts geiago aurkitzen dot. Eta izkuntza erabiltean bertan be bai. Gaur ez da lenagoko beste zeaztasun erabilten arlo onetan, baiña ZER'en alegintzen gara irar-utsak zuzentzen eta uste dogu naikoa ondo agertzen dala. Ez da bear ez denpora geiago eta ez lan geiago. Naikoa da.

ZER zabaltzean laguntzailleak ba-daukaguz eta naikoa sasoz zabaltzen dabe, bidalgora eroateko. Iñoz atzeratu be egiten da, zergaitik edo agaitik, baiña ez gara ikaratzen aldizkari ospetsuak eta aberatsak atzeratuta etorten dirala ikustean. Ez noa ize-

nik esaten. Gure ZER beti etorri da dagokion illearen erdia baiño lenago eta ez dago txarto.

Ekonomi-arloan bai bear gendukez laguntzailleak, batez be errietan, arpidetza eskuratzeko.

* * *

Guk ZER'en elburuak ondo aztertuta daukaguz eta gaurkoz ez dogu ikusten aldatu-bearrik. Sarritan egiten dogu azterketa eta ez dogu ikusten aldatzeko ziorik edo bear-izanik.

Batzuk ez dabe nai bizkaiera ez danik ezer agertzea. Gure ustez oso ondo dago guk bizkaitarrok zeozer gipuzkoeraz irakurtea, orrelan errezago ulertu daigun. Eta ori lortu be egiten da irakurri eta entzun ezker. Eta giputzak be beste orrenbeste egin bear leukee. Gugaz talde-lanean dabiltzanak egin be egiten dabe eta geu gara lekuko geuk baiño geiago maite dabela bizkaiera, eta ez maitasun otza ta utsa, ekiña daroana baiño.

Batzuk atxea onartzea be aitatzen dabe, baiña argi daukagun arazo baten ez dogu atzerarik egingo. Guk argi ikusten dogu, euskereak ez dauala atxerik bear eta orain-artean atxeduna izan ba'litz, oraintxe dala atxea kentzeko sasoi. Euskereak erreztasuna eta idazkera garbia bear dauz, zalanztzak alboratzen dauzan idazkerea. Beste batzuk artu daben bide oker bat artuta, ez dauzagu gure izkuntzari lagunduko, kalte egin baiño. Eta nok daki egunen baten, gaurko eztabaida larriak baretzen diranean, olako zeozer esango dan: "ZER'en idazleak euken errazoia, bide zuzena, naizta gizar-teak arlo onetan baztertuak izan".

* * *

Ogei urteko gazte sendoa dogu ZER eta aurrera goaz. Idazleen eta laguntzailleen gogoia izango dogula uste dogu eta irakurleak be geroago ta ugarriago izango dirala itxaroten dogu. Bizkai'ko euskerearen aide zerbait ba-datorrela dirudi. Ez al da izango beranduegi.

EBANJELIO-ZATIZ ERATUTAKO GURUTZ-BIDEA...

I - egonaldia... Judas Iskariote, amabietako bat, Apaiaz Nagusiekin itz-emanen zegoan Jesus aien-esku ipintzeko, eta aukera billa zebillan...

Ondo bait-zekian au Jesus'ek, eta ez zuan orregatik nai, Pazko-aparia bere ikasleekin nun egingo zuan, Judas'ek jakiterik... Eta orregatik bialdu zituan, Judas-en orde, beste bi ikasle urira agindu onekin: urira sartzen zeratenean, gizon bat aurkituko dezue pitxar batekin ur-karretoan... Jarrai ziozute, eta ura sartuko dan etxeko nagusiarri esan zaizute au: Maixuak bialdu gaitu zuri au esatera: ea nun egingo duan Pazko-aparia bere ikasleekin...?

Eta jantoki eder bat erakutsiko dizute arek, eta prestatuan, zuek, gure Pazko-aparia...

Betania-n izan zuan Jesus'ek izketa au bere ikasleekin, eta ezin jakin izan zuan orregatik Judas'ek, nun ospatu bear zuten Pazko-aparia Apaiaz Nagusiei salatzeko...

"Jauna, ez zitzadala nik Zu saldu mundu ontako ezeren truke..."

II - egonaldia... Zuek garbi zaudete, baiña ez danak...

Apal-tokian zan... Jesus'ek zapi bat arturik, gerrian lotu zuan, eta ikasleei oiñak garbitze asi zan... Eta Pedro'k: Jauna, Zuk neri oiñak garbitu...? Eta Jesus'ek: garbitzen ez ba'dizkizut. Ez dezu Nerekin parterik izango... Eta orduan Pedro'k: ori ala izatea, ez oiñak bakarrik, baita eskuak eta burua ere! Eta Jesus'ek: Garbi dagoanak, ez du garbitze aundirik bear. Eta zuek garbi zaudete, baiña ez danak...!!

Bai bait-zekian Ark, nork salduko zuan...

Ba'dakizute, zer egin dizuedan... Zuek Maixua eta Jauna esaten dedazute, eta egia da! Egizute, bada, zuek ere zuen lagun urkoekin, Nik zuei egiña!

"Aspalde esan zenigun, Jauna, Apaizburuen eta Idazlarrien eskuetara emana izango zifñala... kondenatua... eta gurutziltzatua... baiña irugarren egunean piztuko zifñala berriro..."

"Izan dezagula guk ere, gure lagun-urkoekin, Zuk zure ikasleekin izan zenduan jokabide au bera..."

III - egonaldia... Ar ezazute eta jan... Ni bait-naiz biziaren ogia...

Iñularrea egin zanean, etorri zan Jesus bere ikasleekin jantokira, eta aitormen triste au egin zien: Bene-benetan esaten dizuet: Nerekin jango duan, zuetako batek, saldu egingo nau gaur...!

Eta Pazko-aparia jaten ari zizala, ogia artu, zatitu, eta bere ikasleei eman zien esanaz: Ar ezazute eta jan.. au Nere gorputza bait-da...! Eta Kaliza arturik onela esan zuan: au Nere odola da. Itunaren odola... guztien-alde isu-

riko dedana...! Eta benetan diotzuet: ez det geiago ardorik edango. ardo berria Jainkoa-ren erreiñuan edango ez dedan arte...

"Eskerrak, Jauna, Aldareko Sakramentu Santu ontan gurekin betirako gelditu zeralako... Eta ez ditzagula beifñere aaztu ere, Zuk Kafarnaun-go sinagogan esandako itz pozgarri auker: Nere aragia jaten duanak eta nere odola edaten ba'du betirako bizia, eta Nik, piztuko det azken egunean... Izan ere, Nere gorputza egiatzko janari da, eta Nere odola egiatzko edari..."

IV - egonaldia... Eresia esan ondoren, Olio-mendiruntz irten ziran...

Eta onela esan zion bidean Pedro'ri: Bene-bentan esaten dizut: gaur-gauean oillarrak bi aldiz jo baño leenago, irutan ukatuko nauzu, zuk, Pedro...

Eta Getsemani deritzáion baratzera eldu ondoren, onela esan zien Pedro, Santiago, eta Joan'i: Tristuraz iltzeko zorian nago... gelditu zuek emen, eta ernai egon...!

Eta Bera aurreratxoagora joan, eta Aita-ri deika asi zan auspezturik: Abba...! Aita...! Zuk dana dezakezu, ken, bada, Nigandik kaliza au... Baiña ez bedi egin Nik nai dedana, Zuk nadezuna baizik...

Eta ikasleengana etorri, eta lo aurkitu zituan, eta onela esan zion Pedro'ri: Simon lotan...? Ordubete ere, ezin egon ernai...? Biotz onekoa zera, Pedro, baiña aula da oso zure aragia... Zaude ba, ernai eta egizu otoitz...!

Eta berriro aiengandik aldendu, eta otoitz-bera egiten zion zeruko bere Aita-ri: aal izatea, ez dezadala Nik kaliz au edan... Baiña ez dedilla, ala ere, nere naia egin, zurea baizik...

"Oso zaillak egiten zaizkigu, askotan, Zure naiak, Jauna Zatozkigu ba, lagun..."

V - egonaldia... Musu batekin saltzen al-nauzu, Judas...?

Eta Pedro, Santiago, eta Joan-engana etorri, eta onela esan zien: Jeiki, eta goazen... Eldu bait-da nere saltzaillearen ordua...

Eta artean bere ikasleekin izketan ari zala, urbildu zitzaion Judas, eta musu-emanaz onela esan zion: Agur, Maixu! Eta Jesus'ek: musu batekin saltzen al-nauzu, Judas...?

Eta Bera atxillotutzer a etorri zan jende-taldeari, onela esan zion orduan: Lapur batengana bezela etorri zerate Ni baitzera, ezpata eta makillekin... Eta egunero izan nauzute Jauretxean erakusten, eta ez ninduzuten atzeman... Au-dana, ordea, Liburu Santuetan idatzia bete dedin, gertatu da...

Eta bere ikasleak, Ura bakarrik utzirik, iges egin zuten danak...

Jesus berriz, Kaifas, Apaizburuaren etxera eraman zuten, antxe bait-zeuden bilduak Idazlaria eta Zaarrak...!

"Zergaitik ote da, Jauna...? Baiña geien maite dituzunak, egiten dizute, askotan, saldukeririk aundiena..."

VI - egonaldia... Zu al-zera Mesias, Jainko Bedeinkatuaren Sema...?

Apaizburuaren jauregi-etxeraño jarraitu zioni Pedro'k urrutitik, eta sotondoan gelditu zan bertako morroiek...!

Apaizburua eta Biltzar osoa Jesus'en aurkako salakuntza batzuen billa zebiltzan, ura kondenatzeko... Baiña ez zuten orrelako salakuntzarik aurkitzen, naiz-eta askok gezurrezko salakuntzak egin...

Jeiki zan orduan Apaiz Nagusia, eta galdera au egin zion Jesus'i: Zu al-zera Kristo, Jainko Bedeinkatuaren Sema? Eta Jesus'ek: Bai, ni naiz...! Eta ikusi ere, ikusiko dezute Gizonaren Semea Jainko altsuaren eskuin-aldean eseria, eta zerutik odei-artean etortzen...

Eta Apaiz Nagusiak orduan, bere soiñekoak urratuz: Zertarako bear degu beste testigutzarik? Entzun dezute biraoa. Zer derizkiozue...?

Eta eriotza merezi zuala erabaki zuten... Eta txistua botatzen zioten eta zaplaztakoak ematen...

Eta goizean-goiz Pilato-rengana eraman zuten loturik. Ez bait-zitzaien aiei inor iltzea zillegi...

"Jauna...! Geitu gudan zukanako fedea..."

VII - egonaldia... Bene-benetan esaten dizut Pedro, gaur-gauean, oillarrak bi aldiz jo baño leenago, irutan ukatuko nauzu zuk.

Pedro sotondoan zegoala, Apaiz-nagusiaren neskameta-ko bat etorri, eta Pedro-ri begira-begira, onela esan zion: Zu ere, Nazaret-eko Jesus orrekin ibiltzen zian...! Pedro-ko berriz: ez dakit zer-esaten ari zeran, eta zer esan nai didazun...! Eta bildurrak eraginda, kanpora atera zan Pedro, eta oillarrak lenengoz jo zuan...

Berriro sutondora biurtu zanean, onela esan zien neska-meak an zeudenei: Au ere, Jesus orrekin ibiltzen ziran oietako bat da...! Eta Pedro'k gero-eta -bilturriago: Ez! Ez naiz oietako bat...! An zeudenak orduan: Bai...! Zu ere oietako bat zera, bai... galilearra bait-zera...! Eta Pedro'k orduan, bildurraren bildurrez, madarikatzen ekin zion, eta zin-egitiaz Jesus ukatzen: Ez det ezagutzen zuek diozuten gizon ori...! Eta bereala jo zuan bigarren aldiz...

Eta Jesus'ek esana, gogora etorri zitzaion Pedro'ri, eta negarrari eman zion damaturik oso. Judas'en berriz, bere burua urkatu zuan...

"Jesus'ek ez du pekatarien erioatzerik nai, damutu eta bizi dedilla baizik..."

VIII - egonaldia... Gaizkillea izan ez ba'litz, ez genizuke ekarriko...!

Idazlariak eta Zaarrak ez ziran Pretortegira sartu, Pazko-aria jateko, ez zitezen kutsatu...! Orregatik Pilato'k, kanpora irten, eta onela galdetu zien: Zer salaketa dakartzue gizon onen aurka...? Eta aiek: gaizkillea ez ba'litz, ez genizuke ekarriko... Eta Pilato'k: artu ezazute, bada, zeu-

rok, eta epaitu ezazue zeuron Legearen arabera... Eta orduan aiek: guri ez zaigu zillegi inor iltzea...!

Pilato'k orduan Jesus'i: Zu al-zera juduen errege...? Eta Jesus'ek: nere erregetza ez da mundu ontakoa...! Eta Pilato'k: erregea zera beraz...? Eta Jesus'ek: Bai...! Eta onetarako jaioa naiz ni, eta onetarako mundura etorria: egiaren testigu izateko...! Eta Pilato'k: zer da egia...?

Eta juduengana berriri joan eta onela esan zien: nik ez diot inungo errurik aurkitzen gizon oni... Oitura da, ordea, zuen artean, gizon bat nik askatzea Pazko-jaietan...! Nai aldezie au askatu dezadan...? Eta aiek: ori ez, Barrabas baizik...! Iltzaille bat zan Barrabas au..!

Eta Pilato'k orduan, Jesus zigorgatu errurik-gabe guru-ziltzatuak izaten diranak..."

IX - egonaldia... Agur juduen errege...!

Eta gudariak artu, eta eraman egin zuten Jesus... Eta talde osoa bildu zanean, erantzi egin zizkioten bere jantziak... eta zigorkatu egin zuten...

Soiñganeke bat jantzi zioten gero, eta arantzaz egindako koro bat buruan ezarri, eta onela esaten zioten: Agur juduen errege...

Eta kafiabera batez buruan jotzen zuten... txistua aurpegi-ri botatzen, eta bere aurrean belaunikaturik egiten zioten...

Aspertu ziranean, bere jantziak jantzi zizkioten berriro eta Pilato-rengana eraman... Atera zuan onek Jesus kanpora, auzi-aulkian eseria, onela esan zien juduei: Ona-emen zuen erregea...! Eta aiek oiuka: Ken ori, ken...! Josi gurutzean...! Eta Pilato'k: zuen erregea gurutzean josi bear aldet...? Eta Apaiznagusiak orduan: guk ez degu, Zesar beste erregeri k...!

Eta aien eskuetan utzi zuan Pilato'k Jesus, gurutzean josi zezaten...!

"Zorionekoak zuek, Neregatik iraiñez bete eta erasoko erabiltzen zaituztenean, eta gezurretan edozein gaiztakeri zuen aurka esaten dutenean, poztu zaitezte eta alaitu, aundia izango bait-da zuen saria zeruetan..."

X - egonaldia... Izan ere, egur ezean au egiten ba'dute, zer egingo ote dute iarrean...?

Orduan Pilato'k, ez zuala ezer aurreratzen ikusirik, eta gero-ta-aundiago zala sortzen ari zan iskanbilla, ura artu eta erri osoaren aurrean eskuak garbituz, onela esan zien: Nik ez det errurik zintzo onen eriotzean, Zeurok ikusi zer egiten dezuten... Eta erriak: Betor gure gain eta gure semeen gain onen odola...

Eta Kalbariorako bidean Zirene-ko gizon bat aurkitu zuten. Simon zuan bere izena, eta Alejandro-ren aita zan eta bere sorotik zetorren... Eta oni leporatu zioten Jesus-en gurutza...

Eta erriko jende artean, emakume talde aundi batek jarraitzen zion Jesus'i negar-zotinka... Eta onela esan zien Jesus'ek: Jerusalem-go alabak...! Ez egin negarrik Neregatik... Egizue negar zeurongatik eta zuen seme-alabengatik, Izan ere, etorriko dira, onela esango duten egunak: zorionekoak agorrek, aurrik izan ez duten sabeal eta aurrik azi ez duten bularrak...

ALBISTEAK

Egur ezean au egiten ba'dute, zer egingo ez ote dute farrean...

"Gogoan izan, Jauna, gaurko ama askoen negar samiñak ere"

XI - egonaldia... Nerekin izango zera gaur Paradisuan...

Eta Kalbario-mendira iritxi ziranean, an josi zuten Jesus gurutzean... Eta baita beste bi gaizille ere, bata bere eskuiñean eta bere ezkerrean bestea... Eta deadar au egin zuan Jesus'ek: Aita, barkatu, ez bait-dakite zer egiten ari diran...

Apaiznagusi, Idazlari eta Zaarrak bestalde, au zioten burlaz: Besteak, bai, salbatu orrek, eta bere burua ezin salbatu. Jetsi dedilla orain gurutzetik eta sinistuko diogu... Jainkoagan izan du bere uste ona... Jainkoak aska dezala, bada, orain "Jainkoa-ren Semea naiz ni" esaten bait-zuan...

Eta onela zion gurutz-buruan josi zioten idazkiak: Juduen errege...

Era berean, Jesus-ekin gurutzean josirik zegoan lapurre-tako bat ere, irainka ari zitzaion: Ez al-aiz i, Mesias...? Salba ezak cure burua eta salba gaitzak gu... Bestak, ordea, onela erantzuten zion asarre: Ez al-diok ik ere Jainkoa-ri bildurrik, zigor bera jasotzen agoala? Guk merezia diagu zigor au. Onek ordea, ez dik iñolako gaitzik egin...! Eta Jesus-engana biurtutik onela esan zion: Jesus, oroi zitez nitaz, zure erreñura iristen ziranean... Eta Jesus'ek: Bene-benetan diozut, gaur nerekin izango zera Paradisuan...

"Esana zuan aspaldi Jesus-ek Idazlari eta Fariseuei: bene-benetan diotsuet: zergalariak eta emagaldudak zuek baño leenago sartuko dira zeruetako erreñuan..."

XII - egonaldia... Eta burua makurturik azken-arnasa eman zuan...

Jesus'ek, gurutzearen ondoan bere ama ikustean, eta Aren ondoan Berak maite zuan ikaslea, onela esan zion amari: andrea, orra-or zure semea... Eta gero ikasleari: orra-or zure ama... Eta ordutik ikasleak bere etxean artu zuan Maria...

Dana betea zala ikusirik, Liburu Santuan idatzie bete zedin, onela esan zuan oi uundiz Jesus'ek: zure eskuetan uzten det, Aita, nere arnasa...!

Eta bere burua makurtirik azken-arnasa eman zuan...

Gurutzearen aurrez-aurre zegoan erromatar-euntariak Jesus'ek era artan bere azken-arnasa eman zuala ikustean, onela esan zuan: benetan, gizon au Jainkoa-ren Semea zan.

Perstaketa eguna zan egun ura juduentzat, eta larunbatez gorputzak gurutzean geldí ez zitezen, berna-ezurak auste-ko eta gorputzak andik kentzeko eskatu zioten Pilato-ri Apaiz-nagusiak-eta... Etorri ziran, bada, gudariak eta her-na-ezurak autsi zizkioten lenengori, eta baita Jesus'ekin batera gurutzean josi zuten besteari ere... Baiña Jesus-engana iritxi ziranean, illa zegoala ikusirik, ez zioten berna-ezurrik autse, baizik-eta gudari batek lantzaz saiatsa zulatu zion, eta bereala odola eta ura atera ziran...

"Jauresten zaitugu eta goratzen zure grutze santuaz salbatu bait-zenuan gizadia..."

XIII - egonaldia... Arimatea-ko Jose'k eta Nikodemo'k Jesus'en gorputz-illa obiratzen dute...

Gertakizun guzti auen ondoren, Arimatea-ko Jose'k Jesus'en gorputza jasotzeko baimena eskatu zion Pilato-ri..

Arriitu zan Pilato, ordurako illa zalako Jesus, etaxeuntariari dei egiñez, aspaldi ii al-zan, galdetu zion... Eta euntariaren erantzuna entzun zuanean, eman zion Jose'ri Jesus-en gorputza jasotzeko baimena...

Etorri zan Nikodemo ere, mirraz eta aloez egindako naasketa batekin, eta Jesus-en gorputza gantzutu ondoren, oialez bildu zuten juduen erara...

Ba'zan an baratza bat, eta baratzean illobi berri bat... Eta juduentzat Prestaketa-eguna zalako, eta illobia urbil zegoalako, antxe ipiñi zute Jesus-en gorputza... Eta arri aundi batez illobiko sarrera itxi...

Prestaketa-egun ondoren, Apaiznagusiak eta Fariseuak Pilato-rengana etorri ziran, eta onela esan zioten: Jauna...! Gogoan degu engañatzaille orrek nola esaten zuan: iru egun buruan piztuko naiz...! Agindu ezazu, bada, zaidu dezatela illobia... Ez dezaten here ikasleak gorputza ostu, eta piztu dala, esan... Bigarren engaíñu au, lenengo baño okerragoa litzake-ta... Eta Pilato'k: Ba'dituzte zuen zain-tzailleak... Zoazte bada, eta zaidu zeurok zuen erara...

"Soiñu eder bat entzuten da urrutian: Zure piztuerari kantuz asi dira aingeruak zeruan, Jauna"

XIV - egonaldia... Piztu da Kristo, aleluia Guregan dago, aleluia...

Astearen lenengo egunean Maria Magdalena illobira joan zan goizean-goiz, eta sarrerako arria illobitik kendua ikusi zuan... Eta ikasleengana joan, eta onela esan zien: Eraman egin dute Jesus illobetik, eta ez dakigu nun jarri duten...

Atera ziran laisterka Pedro eta Joan, eta illobira abiatu ziran. Eta Maria-k esan bezela aurkitu zuten dana: oialak lurrean, eta buru-gaiñean edukitako zapia beste leku batean bildua... Baiña ez zuten Jesus-ik ikusi...

Maria Magdalena illobi-ondoan zegoan negarrez, eta illobira begiratu zuan batean, aingeru bi ikusi zituan bertan zuriz jantziak... Eta onela esan zioten aingeruak: zer dezu negarrez, emakume? Eta Maria'k: nere Jauna eraman dute eta ez dakit nun ipiñi duten...! Eta ori esanda, Jesus ikusi zuan, baiña ez zekian Jesus zanik... Eta Jesus'ek: zer dezu nagarrez, emakume? Noren billa zabilta? Eta Maria'k: zuk eraman badezu, esaidazu nun ipiñi dezun, eta nik jaso-ko det! Eta orduan Jesus'ek: Maria... eta onek: Raboni...! Eta Jesus'ek: zoaz nere senideengana, eta eman gurti onen berri...

Joan zan Maria Magdalena, eta onela esan zien ikasleei: Jauna ikusi det, eta au eta au esan dit...


Eta auxe degu, Jesus-ek utzi zizkigun aginduetan, aundienetako bat: Maite ezazue alkar, Nik maite izan zaiturte-dan bezela..."

Piztu da Kristo. Aleluia,
Guregan dago. Aleluia...


ANASTASIO ALBISU AYERDI
1995-V-15

ITXAS-ONTZIAK ANTIXINA

- FENIZIO'TARRENAK



- KRISTO BAIÑO 70 URTE LENAGOKOAK



Barku-barruan oiñezkoen burruka sortu.

—Ez zituzten gauza gutxi itxas-ertzeko euskaldunek ikusi!

—Orrelako ontzien taldeak ikusi zituzten, batez ere Kantabria'ko burruak aretan, Agripa jeneralak eraso zuanean... Esan degu Burdeos'en zeukatela ontzien gordelekua eta Baiona'n (Lapurdum) gudariena... Gudari-saillak joaten ziran ontzi bakoitzeko, oiñezkoak; bear ba'da, emen bertako euskaldun gudariak ere bai.

Erroma'ko Gudarostea eta Laguntzarako Koorreak.

—Gudari asko eramaten al zuten gerra-ontziak?

—Orduan, eta gero ere bai, gerra-ontziaetan beti izan dira gudariak ugari, merkaratzitan ez bezela. Merkataritza-ko itxasontziek ez dute jende askoren bearrik; lagun gu-

txiekin naikoa da; baña, burrukarakoak beste era batekoak dira; aietzaz gañera, beste asko, burrukan egingo dutenak. Legorrean edo udetan, gudariak berdin jokatzten zuten eta gudarostearen zati bat ziran.

—Eta, gudarostea nolakoa zan erromatarren garaian?

—Cesar Octavio Augusto (Antonio burrukatu ondoren sortu zan pake-aldian) gudarostea txikiagotzen saiatu zan. 20.000 gudari zituen Erroma eta Italiarako eta beste 300.000 Inperio guztirako. Oien laguntzakin zabaldu zuten euren nagusitasuna munduan zear; baña, orain, pakea sortu ondoren, ez ziran bear ainbesete. Gañera, gudari izateko bearkizuna kendu eta, soldadu nai zuenak bere naira izan zitekean.

—Insumisorik ez zan orduan?

—Augustok kendu zitun insumisoak orain bi miila urte. Baña, Jesus jaio eta bosgarren arteetan, soldaduskak 20

EUSKALDUNAK

urte irauten zuen; tarteka, 30 ere bai. Bitartean soldaduzka zearo bukatu arte, ezin zekean gudari batek ezkondu.

– Eta, zenbat diru irabazten zuten gudariek?

– Alogera desberdiña izaten zan: Cesar'en serbirtzuan zeuden "Legiones Pretorianas" takoek urtean 750 denario (Denario bat zan langille baten eguneroko alogera); Uri nagusietako gudariek, 373; bestiek, 225. Laguntzalleak ere izan ziran, menperatutako errietatik sortuak eta aiek, urteero, 75. Ez zan asko; baña, besterik ezean...

– Diferentzi aundixamarrak dira...

– Betikoak. Noiz-beinka izaten ziran diru-banaketak soldaduen artean. Esate baterako, Cesar'ek, Jesus jaio aurreko 43'garren urtean, 2.500 denario eman zizkien gudari bakoitzari. Diru asko. 42'garrenean, 500; 36'garrenean, 500; 30'garrenean, 250...

– Eta, soldaduska amaitzean?

– Orduan, abantallak izaten zituzten dirutan edo lurretan; eta, batez ere, petxak sekulan ez ordiantzeko eskubidea. Oiekin danakin zaartzaro ona lortu oi zuten gudari ibilitakoak. Asiera-asieran, "cives romani" zirenei bakarrik zegokien soldau izatea; baña, gerora beste probintzikoei, "peregrini", ere zabaldu zien soldadu izateko eskubidea. Or sartzan ziran Iparaldeko Italia, Galia, Hispania, Mazedonia eta Asia Txikia. Italia'koak, oiek, Erroma'ko gudari berezi biurtu ziran, lengo "cives romani" aien ordeko.

– Eta, laguntzailleak nortzuk ziran?

– Gutxien romanizatutako errietatik artzen ziturtenak eta talde bakoitza bere jendeakin bakarrik osatzen zan: euskaldunak euskaldunekin, asturianoak asturianoekin eta orrela talde gurtiak.

– Nola zegoen eratuta gudarostea?


– "Legio"etan. Legio bakoitzak 5.500 oiñezko eta 120 zaldizko zituen eta Augusto'k 28 Legioetara murriztu zuen Gudarostea asieran; geroago beste iru kendu zitun; baña, baziran Ala eta Cohorte zeritzenak ere; auek, ordea, Laguntzaille ziran.

– Eta zer ziran Ala eta Cohorte laguntzaille oiek?


– "Ala" deitzen zioten zaldunak bakarrik ziranean eta "Cohorte", oiñezkoak ziranean: 500'ko edo 1.000'koak izan zitekean Ala eta Cohorte oiek. Cohorte "Miliaria" ba'zan, orduan 760 oiñezko eta 240 zaldizko zituen; auek, amar "turmae'tan banatuak. "Turma" bakoitzeko 24 zaldi. Cohorte Miliaria betek, 10 "Centuria" zitun. "Centuria" bakoitzak, 100 gudari: 76 oiñezko eta 24 zaldizko. Erdiketa onekin arintasunaren billa zebiltzen; batetik bestera errez joateko moduan, batez ere, erresumako mugak defenditze-ko orduan.

Laguntzaille Euskaldunak.

– "Cohorte" euskaldunen berri historiak ematen digu. Sei izan ziran gutxienez eta gurtiak ziran "Miliaria", milla lagu-




GURE ARBASOEK IKUSTEN ZITUZTEN GERRA-ITXASONTZIak



- ERROMATERRENA
- GUDARAKO
- OLAKOAK KANTAUARREN AURKAKO GUDAN
- ARRAUNLERROAK KONTUAN ARTU EZKERO
 - IR UK OAK
 - LLAKOAK
 - BOSTEKOAK

IZAN ZEITEKEZAN





nekoak: 760 oiñezko eta 240 zaldizko. Bi ziran Baskoiak (Naparro ingurukoak). Rhin ibaiean agertzen dita lenengoz, germaniarrak sortu zuten burrukaldi batean; gerora, berriz, Britania'n. Amabi aldiz jasotzen dituzte Oorezko Diplomak, 105'garren urtetik 160'ra bitartean. Zenbat urte euskaldunak Erroma'ren serbitsuan gudari bezela.

– Eta, gipuzkoarrak ez al dago?

– Bai, beste bi. Millakoak auek ere eta zaldidunak. Bietatik lenengoa da famatuena: “Cohors I Fida Vardulorum civium Romanorum equitata miliaria”. Euren ospea agertzen dute agiriek onelako urteetan: 90, 105, 122, 124, 135, 139, 190. Auen aipamena beste baskoiena baño 15 urte aurreragokoa da. Auetzaz gañera, beste bi Cohorte aitatzen dituzte: bat Caristioena (bizkaitarrena) eta bestea Nervio'nena (Bilbao'koa). Orra sei milla gizon euskaldun gazte, Erroma'ren gudari, 150 urtez gutxienean...

– 150 urteetan belaunaldi asko pasatzen dira eta millaka soldadu asko...

– Sei Cohorte oiek baño geiago izan direnik, ez dakigu; izan zitekeen... Dana dala, auek Lenengo eunkiaren aizkenean agertzen dira; ordurako Arditurri'ko zillar-metazak eun urte zeramaten lanean... Baña, Ebro-ballaran baziran euskaldunak soldadu Kristo jaio 90 urte aurretik. Badago Erroma'n Ascoli'ko brontzea deritzaiona eta bertan Pom-

peyo Estrabon'en (Pompeyo'ren aita) agindu bat (18-XI-90 Kristoren aurretik) dator: “Civi Romani” egiten ditu Turma Saluitian'eko (24 zaldizko) gudariak. Aietatik bederlatzi Egea de los Caballeros (Naparroa'ko mugan) errikoak ziran. Euren jatorrizko izenak (euskaldun, ibero, akitaniko...) aldatzen dituzte, eromatarrenak arturik. Aien artean dago izen au: Elandus (erromatarra) Enneges (Eñegez) euskalduna, Eñegorena.

– Zuk esandako Cohorteak baño zaarrago.

– Beste soldadurik ere izan zan. Izena aldatzeko oitura au Araba eta Naparroa'ko egoaldean, Jesus jaio baño larogei urte aurrerakoa da... Akitania'n, beranduago. Ori orrela dalarik, gerta liteke geure arloseetan dauden zenbait izen erromatarrek, euskaldunenak izatea. 75 denari-zillar urteko ez zan asko; baño meatz-zuloetako lana baño errezagoa zan gudariena eta, gudaritza amaitutakoan, lurrak eta cives romani izatea, petxarik ez ordaintzea... Artalderik ez zutenentzat ez zan zaartzaro txarra. Ez da, bada, arritzeko ainbeste euskaldunek Erroma'ren gudari izan ba'ziran ere. Bizkai'tik Millako Cohorte bi, Gipuzkoa'tik beste bi eta Naparroatik beste orrenbeste: 6.000 gudari aldiko... ia 200 urtez. Ze mordo!.

ARRINDA'TAR ANES

AITA SANTI ONAINDIA ELERTI-EDESLEA (2N. EGUNA)

AURKEZPENA

Jaun-andreok:

Aita Santi Onaindia'ri eskeiñitako goratzarre onetan, gaurko gaia "Aita Santi elertiaren edesgille" da, eta itzaldi onen emoillea, Olazar'tar Martin dogu.

Ez dot uste, euskaltzale bikain onen aurkezpena bearrekoa danik, baiña labur izanik be, berari buruz zeozer gogor-eraziko dautsuet.

Olazar'tar Martin "Euzkarazaintza" Erri Akademiaren lendakaria da, eta "Euskarazaleak"en gure alkartearen Lendakari-ordea. Martiñ'ek asko ta ondo idatzi dau euskeraz, maisutzat azaldu dala beti, euskal elerti alorrean erakutsitako bere jakintzagaitik. Baiña gauza askoen artean, "ZER" gure illerokoan egindako ta egiten dauan lana, agirian jarri gura dot. Laster izango dira ogei urte aldizkari orren zuzendaria dala, eta epe luze orretan bere idazlanak illero-illero uts egin barik agertu dira. Idazle on baizen neke-eziña da gure Martin, eta au gitxi bai'litzan, gure urteroko egutegian idatziz gafierra, lanen alkartzaillea dogu.

Entzun egiozue ba esango dauskuanari, oso jakingarria izango dalakoan.

1996'ko Azilla'ren 3'an.

LABURPENA

NONDIK-NORA:

- Berak itzi dauan utsunea beteten.
- Larra'ko omenaldiaren jarraipena.
- Gaurko gaia Aita Santi Literaturaren edeslea (istorigillea)

LIBURU ASKO:

- 65 liburu inguru, aldizkariak sortu eta lagundu.
- Gai asko erabilli dauz: Olerkiak, ipuiñak, itzulpenak, osasuna, elertia, eskutitzak, oroipenak, kondaira...
- Zein arlotan onena? Nire ustez literatura edo elertian.

ELERTI-EDESLEA:

Lenengo lana:

- "Milla Euskal Olerki Eder"
1954'an. Erbestetik zorion-agurrak.

Lan nagusia:

- Bost ale, azkena egin barik.
- Zergaitik? Urregi, gatxa, mingarria batzuntzat...
- Euskerazaintzaren giroan.
- Eginda egola, baiña...
- Beste edesti batzuk: Mitxelena, Villasante, Mikel Zarate...

Esku liburua:

- Gure amets bat.
- Ikastoletarako, baiña atxe barik?
- Edozeiñentzat da egokia, astiro aztertzekeo.

Gure elertiaren aldiak:

- Idazle bakoitza non kokatu jakin bear.
- Gaztelerearen aldiak artu?

- Beste era batera sortu.
- Gizaldiak beste barik ez da egokia.
- Mikel Zarate'ren bidea osotu.
- Diaz Plaja'ren liburu arrigarria.
- Karmelo Etxenagusia'ren Lorategia.
- Eskintzen dogun eredua.
- **Aurki-bideak:** Izenak eta toki izenak.
- **Agurra.**

ITZALDIA

Arratsaldeon, Jaun-Andreok:

Guztiok ain maite izan genduan Santi Aita gure artetik joan zala urtea izango da datorren otsaillaren 11'n, eta ezin dogu ukatu berak gure artean itzi eban utsunea aundia dala, betetu-eziñekoa dala.

Orrexegaitik egin geuntsan omenaldi bero bat Zornotza, bera bizi izan zan errian, joan dan urrillaren 19'an eta antxe ipiñi geuntsan gizaldietan gomugarri izan daiten, burdin-orizko irudia. Antxe alkartu giñan mai-inguruan berrogei adiskide, Aita Santi beraren arrebea aurrerengo zala.

Egun aundi ori gertatzeko itzaldi batzuk emotea zan gure guraria, eta antolatu be egin genduzan, baiña azken-orduan eta oker-ulertu bategaitik, antza dagoanez, Amorebieta'ko Udal-Batzak eskiñi euskun aretoa ez egoan gure aukeran eta itzaldiak kendu egin bear izan genduzan. Tamalgarria! Baiña itzaldi oneik bearrezkoak zirala uste izanik, ementxe batzen gara iru egun oneitan, bere barrumiñezko olerkaritza, bere Elerti-arloko edeslaritza eta bere Euskal-zaletasuna gogoratze-ko. Gaur elerti-edeslea gogoratuko dogu.

Liburu asko

Santi Aitak liburu asko idatzi ebazan. Nik ez dodaz zanbatu, baiña iñoz entzun dot 65 inguru dirala. Orrez gaiñera aldizkariak sortzen eta eurretan idazten egin dauan lana, benetan txalogarria izan da. Gure ZER'en asko idatzi dau.

Liburu askotan, jakiña, gai asko jorratu dauz Santi'k. Batzuk gogoratu daiguzan: Olerkiak, ipuiñak, itzulpenak, osasuna, elerti-edestiak, eskutitzak, oroipenak, kondaira...

Bear ba'da baten batek itaunduko dau: Eta zein arlotan izan da Aita Santi goragarriena?

Olako itaunai erantzuteko ikuspegi asko eta eritxi asko egertzen dira: Latxaga'ren ustez. gure Kalmeldar onen lanik ederrena barru-miñezko oerkiak dira eta Lizardi, Orixe edo Lauaxeta baiño atzerago ez dala geratzen diño. Nire uste apa-lez, ostera, lan guztien artean zabalena ta sakonena bere Elerti-Edestiak dira eta emen iru liburu aztertuko dodaz batez be: Euskal Literatura 5 atetan, Euskal-Elertia, ikastoletarako esku-liburu lez, eta Milla Euskal Olerki eder liburua.

Elerti-Edeslea Lenengo lana

Arlo onetan Aita Santi'k argitaratu eban lenengo liburua "Milla Euskal Olerki Eder" da.

Berez ez da edesti-liburua, idazkien bilduma baiño. Milla olerki dira argitaratzen dauzanak, ez bat geiago eta ez bat gutxiago. Baiña olerkari bakoitxaren idazkien aurrean, beronen bizitzako zeaztasunak agertzen dauz: Non eta noz jaioa dan eta ii zan, non ikasi eban, bere bizitzako lana non egin eban, elerti-saillean' zelako garrantzia daukan, zenbat eta zelan idatzi eban, bere euskerea zelakoa dan, bere gairik gurenak zeintzuk diran, lortu ebazan omenak, barri oneik non aurkitu daitekezan eta abar.

Zeaztasun guzti oneik izki txikiz eta idazkien buruan ipinten dauz, baiña izki aundiz agertu-bearreko billaketa-lana dira eta Elertiaren edestitartako lan txalogarria ta onuragarria.

Liburu eder au 1954'an argitaratua da. Oraindiño urte latzak ziran areik gure izkuntzarentzat eta ez zan ain gauza erreza orduan liburuak argitaratzea. Eskerrak Santi orretan buru-gogorra ta ekintzaillea zana. Lortu eban argitaratzea eta bera arro egoan liburu orregaitik, arro egoteko moduko liburu ederra zan izan be-ta. Baiña ez zan luzarokoa izan. Laster etorri jakozan poliziak eta liburu ori baituta eroan eben. Dana-dala ale batzuk ezkutauta eukazan, emakume garbitzailleak gorde ebazala be esaten dabe, eta zabaldu al izan eban ixillean.

Poliziak baitu ebezan liburuak be ez ziran alperrik galdu: España'ko Gobernuak, emen izkuntza guztiai jakela itzaltasuna muduaren aurreap ágtzeko, liburu baitu orreik erbestera zabaldu ebanzan eta Aita Santi'k gitxien uste eban laterri bazutatik eskutitzak artu ebazan, zorionak emoten eutsoezela.

Lan nagusia

Elertiaren billaketa-arlo onetan Aita Santi'k egin eban lan nagusia bere Euskal Literatura da. Bost ale argitaratu ebazan, ale bakoitxa 500 orrialde ingurukoa.

Zori txarrez, 1940n. urtean amaitzen da. Beste ale bat atera bear izan eban, dana amaitzeko. Nik sarritan esaten neutsan seigarren ale ori argitaratzeko, baiña bere erantzuna beti zan bat: "Dana dago gertu, ez dago irarkolara eroatea baiño". Ez eban eroan sekula.

Zergaitik ez ete eban argitaratu?

Edestilari guztiak izan dautsoe bildurra edo lotsea eurak bizi diran aldiari. Esan lei edesti-jakingarriak beroegiak izaten dirala eta gauzak diran lez esateko apur bat otzitu-arte itxaron bear dala.

Euskera-arloan, gaiñera, gorabera aundiak izan dira azkenengo urteetan, asarreak be ez txikiak, idazleen arteko zatiketa oso urduria. Aita Santi ez zan ausartu arlo onetan bere eritxia agertzen eta idazle bakoitza, batu-zalea naiz erri-eskeraren zalea izan, bere maillan jarten. Berak erabagi argia artu eban EUSKERAZAINTZA'ren alde eta gugaz kideko zan. Batzar guztietara etorten zan, baiña ez eban nai izaten iñogaz asarrerik, batu-zaleen omenak be artzen ebazan.

Gatxa zan ba Santi'rentzat azken-aldiko naste-borraste au argitzea eta ez zan ausartu seigarren alea argitaratzen.

Eginda egoala esaten eban berak. Orregaitik bere jarraitzalleren batek eraskin lez argitaratuko ba'leu, gauza ederra izango litzake.

Lan au egitean Aita Santi aurrelaria izan zan. Ez elertiaren lenengo edestia dalako. Ba-dagoz beste edesti bastzuk eta gure artean bi dira ezagunenak, Mitxelena'rena eta Villasante'rena, baiña zori txarrez, biak dira erderaz idatziak. Mikel Zarate'k atera eban 1970n. urtean Bizkaiko euskal idazleak liburu ederra. Au euskeraz dago, baiña Bizkai'koak bakarrik aztertzen dauz. Urte bi geroago asi zan Santi bere bilduma argitaratzen, Euskal-Literatura osoaren bilduma, euskeraz. Urte bi geroago Mikel baiño. Orduan Euskal-Elerti osoa lenengo euskeraz argitaratu ebana izan zan Aita Santi.

Mitxelena'k, Villasante'k eta Zarate'k argitaratu ebezan lanak ederrak eta txalogarriak dira. Guztiok irakurri bear genduke. Baiña Aita Santi'ren lana asko zabalagoa, sakonagoa ta ugariagoa da.

Esku-liburua

Guk asmatzen doguzan ekintza asko, aurrera atera barik geratzen dira, edo geu makalak garalako edo laguntzarik ez daukagulako edo erriak garrantzirik emoten ez dautsolako. Olako ekintza bat izan zan, Loiola'n giputzakaz alkartuta, asmau genduana. Ori 75n. urte inguruan izango zan. Euskalerriko ikastola guztien alkarte bat sortzea zan asmao: Baietza emon gendun, araudia be gertatu gendun eta ikas-liburu batzuk argitaratzen be asi giñan. Asko geiago ezin egin izan gendun.

Jazokizun ori gaur gogoratzen ba'dot, gure gaiagaz zer-ikusia daukalako da: Antxe erabagi gendun ikastoletarako esku-liburu batzuk argitaratzea eta, jakiña, arlo orretan ondoen gertautu egoana Aita Santi zan eta beronek artu eban Elerti-arloko esku-liburua gertatzeko ardurea.

Eta zeregiña bete be arin bete eban. Laster izan gendun esku-artearen Euskal Elertia deritxon liburu egokia.

56 ikazkizun dira eta ikaskizun bakoitxean, geienetan idazle bat aztertzen dau, baiña gero oiñean beste idazle asko aldi beratakoak edo ari bardiñekoak agertzen dauz.

Nik urteetan erabilli dot elertia irakasten liburu au eta oso egokia izan da irakaslearentzat eta ikasleentzat: Irudiz apainduta dago, idaz-zatirik gurenak dakar aztertzeko, galdera egokiak, iztegi laburrak... benetako altxor bat da liburu au.

Ez zan, ori orrelan izan arren, ikastoletara sartu. Zergaitik? Euskera batuz idatzita ez dagoalako. Egia esan, gipuzkoarako ta Bizkairako egokia izan dedin, aditza bietara dakar "eben/zuten". Baiña ez zan onartua izan, alboratu egin eben. Ez ikas-liburu au bakarrik, beste gai batzutako liburuak be bai. Ete alboratze orrek milloien galtzea ekarri eban jaurlaritzarentzat, argitaratzaileentzat eta idazleentzat. Or dago gure zori txarra.

Dana dala, gure elertia sakon ikasi nai dauanak, esku-liburu au baiño obarik ez dau aurkituko gaur be. Ez da irakurteko liburua, ikasteko liburua da.

Gure elertiaren aldiak

Iru liburu eder orreik aztertu ondoren, iruretan diran arazo batzuk eta zelan bideratu diran aztertu daigun.

Arazo bat elertiaren edestiak izan bear dauan zatiketa da. Guk idazle bat gogoratzen dogunean, erderazko elertian beintzat, ba-dakigu idazle ori non kokatu: Berceo erdi-aroko idazlea da, Cervantes berbizkunde edo Renacimiento aldiakoa, Lope de Vega Barroko aldiakoa, Moratin neoklasikoa, Espronceda erromantikoa, Galdon Realismo aldiakoa, Unamuno 98n gizaldikoa, Gerardo Diego 27n. gizaldikoa eta abar, baiña euskeraz idatzi daben idazleak non eta zelan kokatu ez dakigu. Eta ori bearrezkoa gauzea da ikasleai laguntzeko.

Zelan bideratzen dabe arazo au gure elerti-edesleak? Begiratu daigun liburu bakoitza: Mitxelena'ren liburtxuan gizaldiak aitatzen dira: XVI, XVII, 1700-1850, 1850'tik gaur arte. Villasante'rena une onetan ez daukat eskuartearen, baiña gizaldiz doala uste dot. Aita Santi'ren Milla Olerki Eder'ean, lenengo saila baten erri-olerkiak dakaz (gerta-olerkiak, maitel-loak, irri-negar, ardo-kantak eta Jainkotiak). Bigarren saillean Lau gizaldi. Irugarren saillean Gure mendea (Bizkaia-koak, Gipuzkoarrak, Bidasoaz andikoak). Mikel Zarate'k bide egokiagoa aurkitu dau: Asierako idazleak, Larramenditarak, Aranatarak, gure aldiko idazleak. Argi dago ez dala zatiketa egokia ta zeatza, baiña bide bat erakusten dau. Diaz Playa'k idatzi eban elerti-liburu arrigarri bat: "Literatura Vasca". Gazteleraz eta España'n gure elertia azaltzeko liburu da. Beste liburu bat dauka Galitzia'ko elertiari guruz eta beste bat Katalunya'koari buruz. Onek zelan egiten dau gure elertiaren zatiketa? I: Erri-elertia, II: XVI gizaldia, III: XVII gizaldia, IV: XVIII gizaldia, V: XIX gizaldia, XI: Iparraldekoa euskaldunak XVIII'etik XX gizaldira, VII: Ogeigarren gizaldiko lenengo 50 urteak, VIII: Gaurko idazleak. Ikusten da ez

dala sartu idazle euskaldunak gastelerazko edesti-zatietan kokatzen. Gizaldiak artu dauz bide lez. Egaña'tar Gotzon'ek be ba-dauko liburu bat Euskal izkera ta elertia deritxona, baiña emen ez da agertzen edesti zatiketarik. Karmelo Etxenagusia gaur Gotzain Laguntzaille dogunak Euskal-Idazleak bizkaieraz argitaratu eban. Lorategia, antolojia, da eta onelan banatzen dau elertia: Erri-literatura, idazle zaar edo klasikoak, gerra aurrekoak, gerra-ostekoak.

Eta zein da Santi Onaindiaren bidea, bere lanik aundienean?

Lenengo alean: Antxiñakoak, XVI, XVII, XVIII mendea eta mende bakoitxaren barruan, bidea emen asten da, gipuzkoarrak, Bizkaiatarrak, Bidasoaz andikoak, Arabarrak eta Napartarrak.

Bigarren alean: XIX mendea: Bizkaian, Lapurdi, Benabarra ta Zuberoan, Gipuzkoan, Arabarrak eta napartarrak.

Irugarren alean gizaldietatik urteetara sartzen da: Bizkaia (1895-1920), Gipuzkoa (1895-1920), Bidasoz andikoak (1895-1920), Naparroa'n eta Araba'n (1895-1920).

Laugarren alean: Bizkaia (1910-1935), Gipuzkoa (1910-1935), Araba (1910-1935), Naparroa (1910-1935), Mugazandik (1910-1935).

Bostgarren alean: Bizkaia (1915-1940), Gipuzkoa (1915-1940), Araba, Naparroa eta Mugaz-andikoak (1915-1940).

Guztietan ikusten dan lez, ez daukagu asmamen andirik gure elerti-edestiaren aldiak eratzean. Orregaitik bide bat neuk eskintzea erabagi dot. Ba-dakit jaramonik egingo ez jatena, baiña eskintza or geratuko da. Nik euskal elertiaren edestia onelan zatituko neuke, Zarate'k eta Etxenagusiak artutako bideak osotuz: I.– Idazle zarrak. II.– Larramendiren aldia. III.– Aranatarren aldia. IV.– Aitzol'en aldia (gerra-aurrekoak). V.– Jazarpenaren aldia (Gerra-ostekoak). VI.– Erri-zale eta batuzale aldia.

Orrelako edo antzeko zatiketa bat egin ezkerro, ikasleak errez kokatuko leukee idazle bakoitxa bere lekuan, Esaterako: Azkue aranatarren aldiko idazlea da, Mitxelena Koldo, batu-zaleen aldikoa da, Benito Larrakoetxea jazarpen-aldikoa da edo Etxepare idazle zarretarikoa da.

Egia esateko, idazlerik geienak dauke beste izkuntza batzutakoak diran aldien ikutua, esaterako Lauaxeta, k 27n. gizaldiaren edo Parnasianitasunaren ikutua dauka, edo Etxepare'k Hita'ko Arziprestearen antza dauko edo Tomin Agirre'ren elebarriak realismo girokoak dira ta Pereda'ren antza dauke, eta abar.

Aurki-bideak

Aurkibideak laguntza aundia dira liburuak ondo bururatzeko. Lenengo, aurkibide nagusia. Ori liburu guztietan edo geienetan aurkitzen dogu eta Aita Santi'renetan be ondo eginda dago. Baiña beste aurkibide batzuk izaten dira laguntza aundia emoten dabenak, esaterako agertzen diran izenenak, liburuenak, errienak eta abar.

Aita Santi'ren euskal Literatura'ko bere bost aleetan aurkibide egoki bat dakar, ale bakoitxaren azkenean: Nor eta toki-izenen aurkibidea. Aurkibide onek zelako laguntza emoten dauan agertzeko, neuri jazoriko zerbait agertuko dot.

Itzaldi bat emon bear neban Bermeo'n, erri aretan jaiok diran idazle guztiai buruz. Ez nekian nondik asi, ez nekian zer egin, eta aita Santi'ren liburura urreratu nintzan. Beti lez, lenengo aurkibide nagusira, baiña zelan jakin non dagozan idazle Bermeo'tarrak? Laster konturatu nintzan beste aurkibide bat egoala eta Bermeo itza billatu neban: Antxe agertzen ziran Bermeo'n izan diran idazle guztien izenak aurkitzeko orri-zenbakiak, eta zeintzuk diran Bermeo'gaz zer-ikusia dauken idazleak eta abar, labur esateko, liburuaren ale bakoitxean Bermeo toki-izena non agertzen dan. Asko poztu nintzan ori aurkitzeagaz eta erreza izan zan nire itzaldia gertatzea.

Agurra

Jaun-andreok! Eldu gara itzalditxu onen azkenera.

Aita Santi Onaindia euskal idazle ugaria eta elertiaren edesle sakona ta zabala dala ikusi dogu. Baiña, amaitzeko, itaun bat: Ba-zan aztertzaile, kritiku, zorrotza?

Nik ezetz esango neuke. Euskerearen alde egiten ziran Ian guztiak goratzen zan zalea, idazleai adorea emotea naiago eban, aztertze zorrotzagaz gogo kentzea baiño. Baten bateri esan ei eutson: "I ez az iñoz be elduko aundien maillara"! Baiña ori ez zan bere eguneroko jokabidea. Biotz onekoa zan guztiakaz.

Eskerrik asko etorri zareen guztioi eta gabon.

OLAZAR'tar Martin'ek

AZKEN GORESPENA


Izkuntz lirain ta erri eder bat
zeunkazan begi aurrean
ezpata zorrotz bildurgarriak
il nairik zoritxarpean;
zure gogoa ernai egoan
erriaren saminpean
ta izkuntza gaitik bizi izan ziñan
espetxeko katepean.

Espetxetako samin aldiak
zuzpeltu eutzun biotza,
beti aurrera jokaturteko
zabalduten euskal itza;
zuk egiz gogoz, agertu zeuntsan
arrigarritzko baitza,
orduezkerro gelditu barik
zabaldu zendun euskera.


Gogo baizen ederrak ziran
euskal aldeko jardunak,
ainbeste lagun jarri zenduzan
biztuta buru-biotzak
ta guzti onen edergarritzak
oroi zenduzan gizonak
elerti on bat sortuko eben
euskeraren idazleak.

PAULIN

ARTZAINAK



EUSKALDUNEN LEIÑUAK



ERRONKARI'tik Egoaldera

EUSKALDUN AZTARNAK II



EUSKALDUNAK KANPOTARREN BEGIETATIK

Euskal Taldeak

– Euskaldunen arteko bereiztesunak eta taldeetan banatzea, erromatarren lana izan zan. Erki edo tribuetan banatu zituzten: Akitaniarrak ifaraldean eta Vascones egoaldean. "Baskunes" izena, indoeuropeoak ipiñitakoa omen da eta "arroak" edo "aundiak" isan nai duela itz orrek. "Baskunes"setik "Vascones"era ez da orrelako alde aundirik. Baskunes edo Vascones, Naparroaldean bizi izan ziran Pirene mendartearen egoaldeko babesean.

– Eta, Varduli?

– Oiek, oraingo giputzak ziran eta Gipuzkoa eta Araba'ko zati bat artzen zuten Kantabria mendiraiño. Carsti, berriz, Bizkaia eta Araba'ko beste zati bat. Autrigoni ziran, Bilbotik sartalde eta egoaldean bizi ziranak.

– Izen oiek erromatarrek ipiñitakoak al dira?

– Ez dakigu orrela aurkitu ba'zituzten ere. Dana dala,

eurok zabaldu zituzten munduan zear izen oiek. Erkirik garrantzitsuena, ezpairik gabe, Akitania'koa izan zan. Pirene-menditik gora, Garona ibaia itxasoan murgiltzen dan arteko lurralde zabalak; baña, egoalderagokoen izena Vascones izan zan. Eta ortik sortu ziran Wasko, Uasko, Vasko eta Eusko.

Vascones

– Nundik nora bizi ziran Vascones oiek?

– Oiratzun'dik asi eta Calahorraraiño; andik Jaca'ra... Alde oiek guztiak Vascones'enak ziran. Gogoan izan bear degu arazo onetan bazirala Naparroan "ceca" edo diru inprimatzalleak Baskunes edo Barscunes izenekoak.

Varduli

– Plinio'k Varduli esaten die; Mela'k Vardulli; Ptolomeo'k Warduli; Estrabon'ek Bardietari, Barduetes eta Bardetuai... Gizajo onek ezin zituen geure izenik asmatu eta gorroto zien... "Bar" orrek indoeuropeoz Marca, Estrema

edo Ertza esan nai omen du; ala ba'da, Barduli izango lirazke Vascones'en azken ertza edo azken muturra. Eta orren itxura apur bat badu; geroago ere Gipuzkoa (Varduli edo Barduli) Pronvincia Vasconozita (Vascongada) zan, geure euskera aien (Vascones'en) euskeraren antzekoa bait da.

– Deva ibaitik aurrera bizkaiera dator.

– Orixe ba; bizkai berba ez dago vasconizatua; beste era batekoa da eta Bizkaia ez da sekulan Provincia izan, Señorío baizik. Bizkaiera oraindik vasconizatu gabe dago. Oraingo aldi onetan Batuak egingo du erromatarrek berberak ere egin ez zutena: Bizkai berba vasconizatu; Bizkaia, Provincia Vascongada biurtu.

– Orixe bai izango dala benetako marka.

– Varduli onek oraingo Gipuzkoa, Araba'ko zati bat, beeko Kantari mendarteraño ziran. Kostaldean, berriz, Oiartzun'dik Deba'raiño; eta Oiartzun'dik egoaldeko Arakil'era, andik Estella'ra eta Los Arcos'etik, Kantauri maldatik Trebiño'ra eta, Vitoria-Gazteiz zear, Deba ibaiaren ballaratik, itxasora.

– Eta, Cariati'ak?

– Caristi (Carietes edo Caristoi, griegoz); auen errialdea Deba ibaiaren sartalderutz, Bilbao'raiño zan. Baña, Araba'n Trebiño'ra sartzen zan Araba'n dik, eta Miranda de Ebro'ra. Sartaldeko mugak, auek ziran: Nervioni ibaia, Orduña'ko aitza eta Arkamo'ko mendiak.

– Eta, Autrigoiak?

– Ifaraldean, Nervion'dik Santoña'ra; egoaldetik, Miranda'raiño eta, Haro'tik zear, Burgos'era sartzen ziran. Anson ibaia, Villarcayo eta Bureba inguru guztia artzen dute Burgos'eraño berriro. Varduli eta Caristi'en, biak alkar artuta, lurraldea baño zabalagoa da Autrigoi'ena.

– Eta, Berones?


– Vascones, Varduli, Caristi eta Autrigoiak, giztiak dite muga Berones'en lurraldeekin. Auek, kelta edo keltotz izenekoak dira... Ibero erriak eraso jo zutenean auren aurka, besteak Santander eta Galizi aldera bota zituzten; baña auek Errioxa'n kokatuta gelditu ziran, Kantauri mendartearen babesean...

– Eta, nun topa dituzu xeetasun oiek guztiak?

– Sánchez Albornoiz jaunak dakarzuki bere Mapa de los Territorios Tribales izeneko liburuan... Erriak ere aitatzen ditu erki bakoitzeko; baña, esan dezagun erri guztiak daukela erromatarren bide nagusietan: Burdeos'tik Astorga'ra-ko 34 bide nagusian; Tarragona'tik Astorga'koan (Bribieska aldean alkartzan dira bi bide onek); eta bien artean, Naparroa'n zear, dauden beste txikiagoetan. Berones'enak ere barruan direla. Kosta-aldean, berriz, Oearso (Bidasoa), Tritium Tuboricum (Deba) eta Flaviobriga (Nervion); zillar meatzak, ura ugari eta burni meatzak aitatzen dira; Forua, oraindik ez.

Euskaldunekin ar-emanak artzaaien bidetik.

– Gure errian sartu ziran jaun berri onek, beurok sortutako bide berrietatik daukate nundik bertako jendearekin ar-emanetan jarri: Tarragona'tik Oiartzun'era: Burdeos, tik Astorga'ra Araba eta Naparroa'n zear... Beste bidea, itxasotik zetorren: Baiona, Bidasoa, Gernika, Nervion-Flavio-



ARTALDE BIDEAK

briga... Tarte orretan, kaiak ugari... Auek ziran erromatarren gudaroste eta merkatariek erabiltzen zituzten bideak, mendietako bide zaarrekin zer ikusi ez zutenak; artzaaien bide auek bestelakoak ziran, mendirik-mendi zebiltzenak.


– Pirineetako bi maldak artzaiez beteta daude gaur ere.

– Bai, ala da, beteta daude eta orrela egon ziran orduan ere. Iparaldera Akitanian zear, eta egoaldera Ebro'ren ibarrean zear. Mendi nagusi orrek ematen ditu Euskalerrian beste mendi txikiagoak ugari: Aralar, Aizkorri, Urbasa, Entzia, Gorbeia eta abar. Batzuen urak Kauntauri itxasora doaz eta besteenak, Maditerrane itxasora... Bide oietatik beti ibilli dira artzaiek.

– Bada oraindik Pirinee menditik beera datorren orrela-ko bidea.

– Karkastelutik aurrera Bardenas Reales'etara datorrena eta Cañada de los Roncaleses deritzana. Bestelako mendietatik Kantauri itxasora, bide motzak dira orren aldean. Araba eta Naparroa'koak luzeago, Ebro'runtz. Bide auetatik erromatarrek ere ibiltzen ziran... Dana dala, gure artzaiek menditik jeisten ziranean, an egiten zuten topo kultura berri onekin.

EUSKALDUNAK



ARTALDE BIDEAK



—Eta, orduan, zer gertatzen ote zan artzai aien buruetan?

—Kultura eta indar berri auen aurrean, txundituta geldituko ziran, Agripa'ren irulerroko "trirreme" aien aurrean kostal-dekoak gelditzen ziranen antzera... Ez zan berdin "canoa monoxila" bat erabilli edo "trirreme" aietako bat... Artzaiek urtearen erdian mendi-gallurretan ibilli arren, neguan beera jetxi bearra zeukaten eta, nai ta nai ez, kultura berri arekin topa bear...

—Berdin gertatuko zitzaizen Saltus Vasconum aietakoei ere...

—Oiartzun'go Arditurriko meatz zuloak eta ango jendetza lanean ukusita, ao-zabaladik egongo ziran begira... Ura ez zan mendiko bakardadea! Ango zarata, ango gurdi eta zamari, ango amaigabeko joan-etorri, ango soldadu-talde, ango Irun eta Bidasoa'ko etxe eta, aberregabeko aberastasanak...!

—Ura ez zan ardiek ematen zuten aberastasanaren antzekorik...!

—Berdin gertatuko zitzaizen Forua-Gernika, Nervion eta Flaviobriga'ko ingumarietako jendeari. Europa, Asia eta Afrika'ko jenero guztiak zetozen erromatarren gurdietan... Mundu osoaren emaitzak saski berean... Oraindik ere arzulotetan bizi ziran aiek, ao-zabalik begira-begira egongo ziran, ezpairik gabe, ainbeste gauza eder ikusita.

—Araba'ko Iruña'n bada arlosa bereizi bat.


Arlosa arek onela dio: "Rhodanus Atilii F. Servos "Anul Tychia" uxor "Illuna" Socra...". Emaztearen izena "Ttikia" eta amagiarreba "Illuna"... Benetako izennik ere ez: Txikia eta Illuna... Biak ziran euskaldunak, emaztea eta onen ama; baña, izenik gabeak; senarrak, berriz, bai: Rhodanus Atilii'ren Semea. Aiek euskaldunak eta au erromatarra edo bestela erromanizatua. Zer aide batetik bestera...

—Nor ote zan Rhodanus ori?

—Soldaduzka utzitako gudari zaarren bat eta arlosa bat jasotzeko aria ondasun bazuena. Gudaritza ondoren ezkonitzen ziran, agosto'ren garaian; baña, Adriano'k (Margarita Ycenar: "Memorias de Adriano", Barcelona, 1986, 102 orrialdean) asmo berri bat artu zuen, tokien tokiko jendea-kin gudariak ezkon aal izateko baimena ematea. Orrela, lurak eskeñiz, bakoitzak bere lurak zaintzen obeto sasiatuko zirelako... Gañera, gudarozteko ofizialek euren atse-denerako zeuskaten ainbat egoitza eder, soldadu zaarren ostatu eta gaxotegi biurtu zitun...

—Ez da bat ere arritzeko Araba'ko gazteluan orrelako soldado zaarren bat aurkitzea eta bertako emekumearekin ezkondua egotea...

ARRINDA'TAR ANES




**BIDE ZABALAK
(B IROBESKA)**

**UDARAKO LARRAK
(GIPUZKOA)**



**EL VILLAR:
"KANTABRIA"
mendartea.**



KALE-BURRUKA ETA IKASTOLAK

Oraintsu Kale-Burruka deritxon arazoa geiagotu dala-ta, danori arduratzen gaituen gaia dogu. Geroagota oldarkor eta kaltegarriagoa agertzen jakun ezker, gizartean itxura txarreko giro kezkatu ta arriskutsu baten murgilduta bizi gara.

Ainbeste bidegabekeri ta ondamedi (autobuz-erreke-ta, lergaikada, iskanbil eta erasoak) baster guztietan dirala-ta, egunkariak, eten barik, emoten dauskuezan barriak doguz.

Aspalditik egoera onetan gagoz, bakea lortu eziñik. Auzi au an-eta aundikoa izanik, or dabiltz gazteak eta ertzaiñak burrukan, bein eta berriro, zalaparta txirrimirriak ezango ba'lira. Onuragarria izango litzake arazoa aztarrenetatik artuta, bein eta betiko, erabaki egoki bat emotea.

Egoera naiko larria dagon ezker, Ardanza Lendakari jaunak jua dan Urrillarako Ajuria Enea'ko Maia'ren batzarrera deitu ba'eban be atzeratu bear izan dau, urren-go illetan une baretsu ta egokiagoa izango ete dan begira.

Olakoetan eutsi eziñezko zirri-parra ta naste-borraste, an emenka, sortzen diranean, ba-dirudi errudun bakarra eusko abertzaletasuna dala.

Ondiño aztu barik dogu urte bat eta erdi-edo dala, Ordoñez jauna Donostia'n, sastakatua izan zanean zer gertatu zan. Baiña dana alperrik; abertzale erkalzale edo demokratik be jaso bear izan ebezan asarre ta irain guztiak.

Beti bezela, ontaz edo artaz, aukera sortzen danean, arerioa erne ta zur dago eusko abertzaletasunaren aurka jokatzeko.

Oraintsu be, kale-burruka dala-ta Laterri-Jaurilaritzaren ordezkaria dan Endeka Billar jaunak, iñolako begiramen barik zarraparra ta gaitzakeri oneik, ikastolen batzuz gaz alkar lotuta dagozala adi-erazi eban.

Beriala sortu zan izkanbilla. Ezpaiñar komunika-bide, batez be egunkari garrantzienak asi ziran, ao batez eta asarre bizian, beren iruzkin zorrotzak agertzen.

Kale-burruka ta ikastolen arteko adi-erazi dan zerikusi ori, Ezkuntza-Sailburua dan Inaxio Oliberi jaunak, agerpen guztiz aspergarri izanik, zorrozki eta osoro guzurpetu eban. Onezaz gaiñera-sendotu eban Ezkuntza Sailburu Jaunak-kaleko zarraparra ta ezkanbil oneik ikastolagaz alkarganatze onek, nola edo ala, indarkeria ta eusko abertzaletasuna bat egiten dauzan ezker, ba-dirudi oneri (abertzaletasunari), oi danez, ospea kentzeko alegintzen dirala.

Nik ikastola banakaren bat ezagutzen dot, baita ikaslen guraso batzuek, baiña ez dot iñoiz ezkuntzari buruz entzun araurik-eza edo legez-kanpo ezer egiten danik.

Ez dakit laterriko ordezkariak zer ikusi al izan dauan, olako agerpenak aitatzeko. Izan leiteke faxista irizpideak ondiño kendu barik izatea, ba osterantzian ulertu eziñezkoa da.

Gudan ta guda ondorengo aldian bizi izan garanok, ondo dakigu, Espainia 'n ezkuntzaren arau ta gaiak zelakuak ziran.

Zorioneko "Doctrina del Movimiento" izendutako ikas-gaia ondiño gogoan dogu. A zan ires-bearra, a! Naita-naiezko ikasi ta urtero aztertu bearrezkoa.

Laterrian aberri bat baiño ez egoan. Ez Euskadi, ez Katalunia... Espaiña bakarrik eta bera "una, grande y libre". Onezaz gaiñera "una unidad de destino en lo universal" izanik. Ezkuntzari buruz be, bat danontzat naikoa zan: euskerea, katalana... zertarako erabili! Galerazo ta kitu.

Aldi arek jua ziran eta orain ez dago alako gaiak leporatzerik. Gaurko egunean, zorionez, euskeraren irakaskintza (baita beste gaitetan be) jarri ta antolatuta dagoz. Izan be, bidezko da esatea, arlo ontan ikastolak aintzindariak izan dirala.

Eusko ikastolak aintzinean gertatu ziran ezker, orain lenengotik asi ziran beren irakaskintza trebetasun eta aragitez. Ikasle jayo ta bizi diran Euskal Erri oneri dago-kionez erara erakusten dautsie bear dabezan gaiak ezkuntza oso ta on bat lortzeko: Gure asaben ezkuntza ta bere gramatika edo eliziti, istori edo edestia, geografi edo lutelestia... besteak beste.

Ikastolai ezkerak, orain euskerea geroago ta geiago ikasten ari da, ta urren-go gizaldiak euskaldunak izango diralakoan itxaronpetsu gagoz.



Baita edesti ta lutelestia ikasitakoan mutikoak aberria len baiño obeto ezagutuko dabe, ba orain zeatz-meatz eta barren-berrendik aberriari dagokiona erakutsiko dautseta.

Ezin geinke maitatu ezer be ezagutzen ez da'dogu. Beraz, bein aberria ezagutu ezker, abertzaletasuna berez sortzen da, ta zintzotasun au birtute txalogarria da.

Kale—Burrukak sarritan izaten dira. Dabiltzan mutillak, geienak beintzat, euskotar ezkuntza artu dabenezker, bidezko da abertzale bezela agiri ta jokatzea. Zoritxarrez, batzuetan indarkeria be sortzen da; ta olakoetan erazo ta sarraskiak funtsean eta osoro gaitzetsi bearrean gagoz. Baiña zarra-parra oneitan gazteak eusko ikurriñaren orde, gorri-oria dana eragin eta oiugoraka guztiak espaiña-zaleak izango ba'litzaz, laterriko ordezkari jaunak ez leukee ainbeste ardura ta miñ artuko.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER


EUSKALDUN BARRIENTZAT



Marrazkietan zenbakiak ipiñi bear dozuz. Marrazki bardiñetan zenbaki berdiñak.

ZORTZI ALDAKETA

1799£z 699171
 £178L + z££0 +
 9586 8IS17
 9cz OS9Z
 6OL17 691 L
 eudlezy



ueaz11 nz aura ieq .irpy
 o3eia31eq InV
 maim zezilrq etpia ualeaao'J
 o3eia3 aepag
 aria zeq miew ueadosaq leigia olazw
 ueopuo prlraq launjexz o3eia3 luq e.~eyA
 o3uloO ieq all ! lq-
 eo3etpune eiap O

zeluelel -6 `ZU10J.Mw -g zeu
 -!pin -L `zuo3 -9 `zasu -c `zuo -17 `zeuipan -£ `zezalug -Z `zrOal10 -1
 :nlzo3.n w
 -plefamp ala Ism!! -aZ `znep yeisel1 lul.uuq e.'a o-lerezaueue aq 1 ,JnZ



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbaridiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK